

SAN SEBASTIÁN TURISMO-DONOSTIA TURISMOA, S.A.n ENPLEGUA EGONKORTZEKO HAUTAKETA PROZESU BEREZIEN ETA ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO HAUTAKETA PROZESUEN DEIALDIA ETA OINARRIAK

OINARRI OROKORRAK

LEHENENGOA. DEIALDIAREN XEDEA.

Deialdi honen xedea da San Sebastián Turismo-Donostia Turismoa, S.A. sozietaterako zenbait lanpostu kontratatzea. Sozietate horren xedea da zuzenean edo zeharka Donostiako lurralde-eremuan turismoaren garapena bultzatzen lagunduko duten jarduera ekonomiko eta sozialak sustatzea, garatzea eta indartzea.

Deialdi honen xede diren lanpostuak enplegua egonkortzeko prozesu berezien eta enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuen esparruan sartuta daude, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen arabera.

Honako hauek dira deitutako hautaketa-prozesuak, prozesu-mota, modalitatea, plaza-kopurua eta bakoitzaren baldintza espezifikoak zehazten dituen eranskina:

Postua:	Prozesu-mota	Sistema	Sartzeko modalitatea	Plazak guztira	Oinarri espezifikoaren eranskina
Harrera eta Informazio Agentea	Egonkortze-prozesu berezia	Lehiaketa-Oposizioa	Orokorra	1	1. eranskina
Harrera eta Informazio Agentea	Salbuespenezko egonkortze-prozesua	Lehiaketa	Orokorra	2	2. eranskina
Komunikazio Arduraduna	Salbuespenezko egonkortze-prozesua	Lehiaketa	Orokorra	1	3. eranskina
Marketin Kudeaketako Teknikaria	Salbuespenezko egonkortze-prozesua	Lehiaketa	Orokorra	1	4. eranskina
Produktuaren eta Azken Publikoaren merkataritza-kudeaketako Teknikaria	Salbuespenezko egonkortze-prozesua	Lehiaketa	Orokorra	1	5. eranskina
Zuzendaritzako Idazkaria	Salbuespenezko egonkortze-prozesua	Lehiaketa	Orokorra	1	6. eranskina

Deialdia publikoa eta irekia da, eta deitutako hautaketa-prozesuak langileak hautatzeko enpresa batek kudeatuko ditu, dokumentu honetan jasotako betekizunei eta berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publizitate-printzipioei jarraiki, eta deialdiaren arau orokorrekin eta dokumentu honetan jasotako hautaketa-prozesu bakoitzaren berezitasunekin bat etorritik.

Deitutako hautaketa-prozesuetatik eratorritako kontratazioak lan-kontratu mugagabearen bidez egingo dira.

Hautaketa-prozesu horiek ez dute lan-poltsarik sortuko.

BIGARRENA. PARTE HARTZEKO BETEKIZUN ETA BALDINTZA OROKORRAK.

Hautaketa-prozesuetan parte hartu ahal izango dute honako baldintza baztertzaila hauek betetzen dituztenek, kasu bakoitzerako ezartzen den eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik, eta kontratua sinatu arte bete beharko dituzte:

- a) Legezko bizilekua Espainian izatea eta lan-baimena.
- b) 16 urte beteta izatea.
- c) Deitutako lanpostuetako zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.
- d) Eskatutako titulazioa izatea, edo titulazio hori jasotzeko eskubideak ordainduta izatea, lanpostu bakoitzerako baldintza espezifikoetan adierazitako berariazko betekizunen arabera. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen agiria eduki beharko da.
- e) Deitutako lanpostu bakoitzerako eskatzen den beste edozein betekizun espezifikoa, dagozkion baldintza espezifikoen arabera.
- f) Indarrean dagoen araudiaren arabera, ezintasuneko edo bateraezintasuneko legezko kausarik ez izatea.

HIRUGARRENA. PARTE HARTZEKO ESKABIDEAK AURKEZTEA.

Onarpenerako eta, hala badagokio, hautaketa-prozesuetan parte hartzeko, honako hauek egin beharko dira:

- 1.- Horretarako prestatuko den eskabide-orria betetzea.
- 2.- Ezarritako epean aurkeztea.

Halaber, aurkezteko epea amaitzen den egunean, eskatutako baldintza guztiak bete beharko dira, bigarren puntuan ezarritakoaren arabera.

Parte hartu nahi dutenek eskabide bat aurkeztu beharko dute parte hartu nahi duten hautaketa-prozesu bakoitzeko.

Hautaketa-prozesu bakoitzerako eskabideak aurkezteko epea zortzigarren baldintzan adierazitako jakinarazpen-bidean argitaratuz irekiko da (www.sansebastianturismoa.eus/eu (kontratazioaren atalean)). Nolanahi ere, hautaketa-prozesu bakoitzerako eskabideak aurkezteko epeak 2024ko ekainaren 30a baino lehen irekiko dira.

Hautaketa-prozesuetan parte hartzeko eskabideak hamar egun balioduneko epean aurkeztuko dira, irekiera jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskabideak hautaketa-prozesu bakoitzerako epea irekitzen den unean zehaztuko den prozeduraren arabera aurkeztuko dira.

Alegatzen diren betekizunak eta merezimenduak edukitzeko erreferentzia-data eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da.

LAUGARRENA. ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO PERTSONEN ZERRENDIA.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, berrikusi egingo dira, lanpostu bakoitzerako eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, eta zortzigarren baldintzan adierazitako jakinarazpen-bidean onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrendak argitaratuko dira.

Zerrenda horietan, baztertzeko arrazoia adieraziko da, hala dagokionean, eta 3 egun balioduneko epea emango da erreklamazioak aurkezteko eta eskabideetan egon daitezkeen akatsak zuzentzeko, zerrenda horiek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta erreklamazioak ebatzi ondoren, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrendak argitaratuko dira bide beretik.

BOSGARRENA. HAUTAKETA PROZESUAK

Hautaketa prozesuak baldintza orokor hauetan jasotako irizpide eta ezaugarri orokorren eta deitutako lanpostu bakoitzerako baldintza espezifikoen jasotako irizpide eta ezaugarri espezifikoen arabera egingo dira, lanpostu bakoitzerako izangaien azken kalifikazioen behin betiko zerrendak argitaratu arte.

5.1. Horretarako, hautaketa-prozesu bakoitzerako hautaketa-batzorde bat eratuko da, eta kideak izendatzeko, inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioak errespetatuko dira.

Hautaketa Batzordeak hautaketa-prozesuen gardentasuna eta objektibotasuna zainduko ditu, bai eta proben konfidentzialtasuna eta deialdiaren oinarriak zorrotz betetzea ere. Halaber, hautaketa-prozesuak garatzean sortzen diren zalantzak argitzeko ahalmena izango du, bai eta baldintza hauetan xedatutakoaren arabera

horiek modu ordenatuan garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko ere, eta horietan aurreikusi gabeko kasuei dagokienez hartu beharreko irizpideak ezarriko ditu.

Hautaketa Batzordeak bere lanetan aholkulari edo enpresa espezializatuak sartzea xedatu ahal izango du, egoki iritzitako kudeaketak eta probak egiteko, hala nola eskaerak jasotzea, probak diseinatzea eta probak gauzatzea eta baloratzeta.

Hautaketa-batzordeko kideren bat ezin bada bertaratu, Zuzendaritzak hura ordezkatzeko duen pertsona izendatuko du.

5.2 Interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte zortzigarren baldintzan adierazitako jakinarazpen-bidean egiten diren argitalpenen ondoren, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita 3 egun balioduneko epean, horretarako ezartzen den prozedurari jarraituz.

5.3. Prozesu motaren arabera hautaketa-sistema honako hau izango da:

- Egonkortze-prozesu bereziak: Lehiaketa-Oposizioa hautatzeko sistema
- Salbuespenezko egonkortze-prozesuak: Lehiaketa hautatzeko sistema

5.4. Oposizio eta/edo lehiaketa faseen ezaugarri orokorrak:

OPOSIZIO FASEA:

Nahitaezkoa da, eta ez baztertzaila. Lanbide-gaitasuna baloratzeko probak egingo dira. Proba horiek galdetegiak izango dira, eta erantzun-aukera bat baino gehiago izango dute, eta/edo deialdiko lanpostuen eginkizunekin eta jarduera-esparruarekin lotutako kasu teoriko-praktikoak ebatziko dira.

Izangaiak proben prestaketan orientatzeko, lanpostu bakoitzaren baldintza espezifikoei horri buruzko informazioa sartzen da.

Izangaiei deialdi bakarra egingo zaie, eta dei egiteko unean pertsona bat probetako edozeinetara aurkezten ez bada, bertan parte hartzeko eskubidea galduko da automatikoki, eta, ondorioz, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da, Hautaketa Batzordeak behar bezala justifikatu eta libreki balioesten dituen kasuetan izan ezik.

Egokitzapen berezia behar duten dibertsitate funtzionala duten pertsonen probak egiteko beharrezko egokitzapenak egingo zaizkie, gainerako parte-hartzaileen aukeraberintasuna izan dezaten, betiere probaren edukia indargabetzen ez bada eta eskatutako gaitasun-maila murrizten ez bada.

LEHIAKETA FASEA:

Lehiaketa-fasean hautagaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Nolanahi ere, alegatzen diren merezimenduen erreferentzia-data eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da. Horretarako, behar bezala egiaztatu beharko dira horretarako ezartzen den epean, eta ezartzen den alegazio- eta egiaztapen-prozedurari jarraituz.

Balioetsi daitezkeen merezimenduak eta baremoa hautaketa-prozesu bakoitzaren baldintza espezifikoei zehazten dira, eta horietako bakoitzari dagozkion puntuak

esleituz egingo da balorazioa, kasu bakoitzerako ezarritako baremoaren arabera.

Lehiaketa ez da baztertzailea izango.

SEIGARRENA. AZKEN KALIFIKAZIOA ETA BEHIN BETIKO SAILKAPENA.

Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa oposizio-fasean eta/edo lehiaketa-fasean lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du, prozesuaren tipologiaren arabera.

Behin betiko sailkapenean, izangai bakoitzaren lehentasun-hurrenkera adieraziko da, lortutako puntuazioaren arabera, eta, hala badagokio, berdinketa hausteko irizpide hauek ondoz ondo aplikatuta. Ez da aplikatuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legearen 20.1.a) artikuluan aurreikusitako lehentasun-klausula, deitutako lanpostuan emakumeen azpiordezkaritzarik ez dagoelako:

- Erakundeko lan-poltsan deialdiko lanpostuan puntuaziorik handiena lortu duenaren alde (Harrera eta Informazioko Agentearen lanpostuei soilik aplikatuko zaie).
- Erakunde deitutako lanpostuan zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde. Puntuazio-muga ez da kontuan hartuko, eta egunka zenbatuko da.
- Erakunde zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde. Puntuazio-muga ez da kontuan hartuko, eta egunka zenbatuko da.
- Beste erakunde batzuetan deitutako plazaren berdina edo baliokidea den plaza batean zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde. Puntuazio-muga ez da kontuan hartuko, eta egunka zenbatuko da.
- Zozketa publikoa.

ZAZPIGARRENA. LANEAN HASTEAN.

Hautaketa-prozesu bakoitzean hautatutako izangaiak Sozietatean sartuko dira, lan-kontratu mugagabea formalizatuz ezartzen diren epeetan, eta Sozietatearen araudiaren arabera arautuko dira.

Lanpostu bereko hainbat dotazio eskaintzen badira, Zuzendaritza-Gerentziak behin betiko sailkapenaren ordena errespetatuz esleituko ditu.

Era berean, hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratu ondoren, pertsona horiek eskatzen zaizkien agiriak aurkeztu beharko dituzte horretarako ezarritako epean, eta hautaketa-prozesuan zehar modu frogagarrian egiaztatu ez diren agiriak edo prozesuan zehar mantendu behar diren eskatzaileen baldintza pertsonalei buruzkoak soilik aurkeztu beharko dituzte, hala nola, ezintasun- edo bateraezintasun-egoerarik eza.

Adierazitako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, dokumentazioa

aurkezten ez dutenek, edo dokumentazioa aztertuta ondorioztatzen dutenek ez dutela eskatutako baldintzaren bat betetzen, edo dagozkien zereginak betetzeko eska daitekeen gaitasunik ez dutela, ezin izango dute lan-kontratuko langile finko bihurtu, eta beren jarduera guztiak baliogabetuta geratuko dira, eskaera faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe.

ZORTZIGARRENA. ARGITARATZEAK.

Hautaketa-prozesuen deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta deialdia egin duen erakundearen helbide elektronikora bidaliko da: <https://www.sansebastianturismoa.eus/eu/kontratazioa>

Hautaketa-prozesuetan zehar, hura garatzeko alderdiei buruzko informazio guztia <https://www.sansebastianturismoa.eus/eu/kontratazioa> helbidean argitaratuko da jakinarazpenetarako, hautaketa-prozesu bakoitzerako eskabideak aurkezteko epearen irekiera barne.

BEDERATZIGARRENA. DATUEN JAKINARAZPENEA

SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA, S.A.k (Helbidea: Boulevard 8, Donostia, Gipuzkoa; Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatuta: 1.479 liburukia, 81 folioa, SS-9.471 orria eta IFZ: A-20188884) tratatuko ditu, tratamenduaren arduradun gisa, bere eskabideetan parte hartzen duten pertsonak emandako datu pertsonalak eta deialdi honen xede den prozesuan ematen dituztenak, hautaketa-prozesu horretan duten parte-hartzea kudeatzeko, eta oinarritzat hartuta kontratu aurreko neurrien aplikazioa, izangaiak berak eskatuta.

SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA, S.A.k Datuak Babesteko ordezkari bat (DPO) izendatu du, erakundeko pribatutasuna kudeatzeaz eta kontrolatzeaz arduratuko dena, eta harekin harremanetan jar daiteke dbo@donostia.eus helbide elektronikoaren bidez.

SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA SAK parte-hartzaileen datu pertsonalak gordeko ditu deialdi honen xede den hautaketa-prozesua behar bezala gauzatzeko behar den denboran, eta erakundeak bere legezko betebeharrak betetzeko bete behar dituen kontserbazio-epe gehigarrietan.

Deialdi honen xede den hautaketa-prozesua publikotasun-printzipioak arautzen du, eta, beraz, zortzigarren oinarrian adierazitako bitartekoan argitaratuko dira onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak, bai eta parte-hartzaileek lortutako puntuazioak eta azken emaitzak ere. Nortasuna NAN zenbakiaren bidez jasoko da.

Argitalpen hori alde batera utzita, zeinak interes publikoan oinarritutako datu-komunikazioa baitakar, eta legeak aginduta nahitaezkoa den kasuetan izan ezik (adibidez, epaileak, auzitegiak eta/edo agintari publikoak), parte-hartzaileen datu pertsonalak ez zaizkio hirugarren bati komunikatuko. Datu pertsonalen nazioarteko transferentziak egitea ere ez dago aurreikusita.

Parte-hartzaileek honako eskubide hauek izango dituzte: (i) beren datu pertsonaletarako irispidea eskatzea, bai eta datu horiek zuzentzea, ezabatzea edo mugatzea, haien eramangarritasuna edo haien tratamenduaren aurka egitea ere, hala badagokio, dbo@donostia.eus helbidera zuzendutako idatzizko eskaera baten bidez; eta (ii) erreklamazio bat aurkeztea Datuak Babesteko Espainiako Agentziari edo beste edozein kontrol-agintaritzara eskuduni, bereziki beren eskubideak baliatzean gogobetetzea lortu ez dutenean.

Donostia, 2022ko abenduaren 22an



Isabel Aguirrezabala Wurster
Zuzendari Gerentea